




Arratsalde on,

Ohore handi bat da niretzat gaurko ekitaldiari hasiera ematea. Ilusio handiz abiatu genuen elkarlan hau eta, gaur, urtebetez lan isila egin ondoren, herritarrei ezagutzera emateko denok biltzeak ilusio berberarekin jarraitzen dugula erakusten du. Eta hori eskertzen hasi nahi dut ekitaldia. Elkarteetako ordezkariak eskertu eta zoriondu nahi ditut publikoki, eta egiten ari diren lana goraiatu. Eta, era berean, herritarrak animatu nahi ditut elkarte hauetan parte hartzera eta Pasaia bizitza ematen dioten elkarteetara hurbiltzera. Denon artean Pasaia biziagoa eta parte-hartzaileagoa eraikitzea baita gaur aurkeztuko den proiektuaren nahia.

Aurrera egin aurretik, halere, argitu nahi dugu proiektuan ez daudela herriko elkarte guztiak. Haur eta nerabeentzako jarduerak eskaintzen dituzten elkarteak bakarrik dira proiektuaren partaide. Zergatik?

Haurrak eta nerabeak babestea eta hauen beharrei erantzutea erronka gisa hartu dute Pasaia elkartek: udalak, ikastetxeak eta elkarteak; herritar guztien ardura direlako herriko haurrak.

Lehentasuna, beraz, haur eta nerabeekin lan egiten duten elkarteak dute eta, momentuz, hauek bildu dituzten proiektu honek. Alegia, herriko elkarten % 34. Elkarte hauen eragina, halere, handia da, eskaintzen dituzten eskolorduz kanpoko jardueretan 6-18 urte bitarteko pasaia 1031 haurrek hartzen baitute parte.



### **Elkarlanean gauzatutako proiektua**

Azpimarratu nahi dut aurkezpenaren hasieran, gainera, proiektu honek lan egiteko modu berri bat jarri duela martxan. Gaur bildu garenok ikusita, erraza da hori antzematen.

**ELKARLANEAN** gauzatzen ari gara proiektua. Elkarlana, gainera, hainbat eremutan gauzatzen ari da:

- Udal sailen artean: Gazteria eta Kirol Saila, Kultura eta Hezkuntza Saila, Euskara Saila, Gizarte Ekintza Saila eta Udaltzaingoa.
- Elkarten artean.
- Elkarten eta Udalaren artean.

Elkarlana haurrek eta nerabeek dituzten beharrak definitu eta adosteko; elkarteek dituzten beharrak eta kezak partekatze, eta baita herriak dituen baliabideak kudeatzeko ere. Hitz



batean, denon artean pentsatzen eta erabakitzen dugu zer egin eta nola egin; alegia, zerk kezkatzen gaituen, eta kezkatzen gaituen horri zer irtenbide eman diezaiokegun.

Elkarlana praktikan lan-taldean bitartez ari gara gauzatzen. Hiru lan-talde eta gune orokorra sortu ditugu. Gune orokorrean lan-taldeetan aztertutako proposamenak landu, eta erabakiak hartzen dira. Funtzionamendu eredu berria da guztiontzat eta, oraindik ikasteko asko dugun arren, urtebeteko esperientziari begiratuta, esateko moduan gaude elkarrengandik hurbilago gaudela, konfiantza giroan egiten dugula lan, eta ongi funtzionatzen ari dela elkarlana.

### Proiektuaren helburuak

Ez da berria lan boluntarioa egiteko konpromisoa azken urteetan gainbehera doala esatea. Kezka nagusi horretatik abiatuta, elkartearen dinamika biziberritzea helburu nagusi gisa hartuta ekin dio proiektuak bere bideari, dinamika biziberritzearen ondorioz beste hainbat helburu ere lortuko dituela jakitun izanda. Hauek dira, laburbilduz, proiektuak landuko dituen helburuak:

- Elkartearen **dinamika biziberritzea**.

Horretarako elkarteek egiten duten lana goraiatu, baloratu eta elkarteetan lan egiteko **ilusioa berpizten** ahaleginduko gara; helburu hau landuz beste hauek ere lortuko ditugulakoan:

- Elkartearen biziberritzeak elkartearen hedapena eta zabalkundea ekar dezake.
- Elkartera bazkide eta haur/gazte gehiago hurbilaraz ditzake.
- Zuzendaritzako erreleboa errazago egiten lagun dezake.
- Begirale eta entrenatzaileak aurkitzea erraztu dezake.

- Elkarlanean oinarritutako **lan egiteko modu berri bat abian jartzea**.

Kezkek eta beharrak **partekatu**, landu beharreko proposamenak eta irtenbideak **adostu eta erabaki**, eta baliabideak **elkarrekin kudeatzea** eskatzen du metodologia honek, eta hala egiteko sortu ditugu guneak eta lan-taldeak.

- **Harremanak eta komunikazioa indarberritzea**.

Bai Udal eta elkartearen artekoa, eta baita elkartearen artekoa ere. Lan egiteko modu berriak berez ekarriko du helburu hau gauzatzea.

- Haur eta nerabeentzako **eskaintza zabaltzea**.

Elkarteak indartuz doazen neurrian eskaintza bera ugaritzea ere ekar dezake; Pasaiaiko haur eta nerabeek aisialdiaz gozatzeko jarduera berriak sortzea, alegia.

- Haur eta nerabeei **tratu ona bermatzea**.

Haur eta nerabeen babeserako planean elkarteek ere beren zeregina dute, eta horixe lantzen ari den lan-talde bat sortua dago jada.

- Haur eta nerabeen **hizkuntza beharrak bermatzea**.



Euskara eta gaztelera, biak ezagutzea bermatu behar diegu Pasaiaiko haur eta gazteei, eta ardura hori guztiona da: familiena, eskolarena eta eskolaz kanpoko jarduerak eskaintzen dituzten guztiena. Ingurune erdaldunduetan bi hizkuntzak bermatzeko euskararen eskaintza indartu beharra dago eta, proiektu honek behar hau ere landuko du.

### Proiektuak landuko dituen beharrak eta kezak

Proiektuak landuko dituen lan-ardatzak zehazteko elkarteek dituzten kezak eta beharrak jasotzeari ekin genion eta diagnosian ondokoak jaso genituen:

- **Lokalen eta udal instalazioen** inguruko kezka izan da errepikatuen elkarten artean. Batzuek ez dute lokalik; beste batzuek izan bai, baina ez da egokia...
- **Elkarteetara jendea erakartzeko beharra** ere nabarmendu egin da elkarten kezken artean. Behar orokor honen barruan bildu ditugu ondokoak:
  - Elkarteetara **haur eta nerabeak** erakartzeko beharra.
  - Lan boluntarioa egiteko prest leudekeen **begirale, entrenatzaile edo eta irakasleen** beharra; ez omen da erraza lan boluntarioa egiteko prest dagoen jendea topatzea. Honek, zenbait elkarteren bizi-iraupena kolokan jartzen du.
  - Elkarteetara **Zuzendaritza batzordeetako erreleboa** egiteko kide berriak erakartzeko beharra. Belaunaldi berriak erakartzeko ahalegina egin nahi dugu.

Bi behar hauek izan dira errepikatuenak eta lehentasuna eman zaie lantzeko orduan. Sortutako bi lan-taldetan bi behar hauek lantzen hasi dira.

Bestelako beharrak ere jasota daude, baina aurrerago lantzekoak dira hauek:

- Zenbait elkarteek **formazioaren** inguruan kezka handiak dituzte: elkarte barruko kideek formazioaren beharra, zenbait lan egiteko gaitasuna eskuratzeko; haur eta nerabeekin lan egiteko begiraleen formazio beharra...
- **Euskararen presentzia** sendotzeko beharra. Elkarteek ere agertu dute hizkuntzarekiko kezka eta gainontzeko beharrak lantzen goazen neurrian lantzen ari da behar hau ere.
- **Harremanak eta komunikazioa** lantzeko beharrak ere agertu dira egindako diagnosian; alegia, elkarten arteko eta udal eta elkarten arteko harremanak sendotzeko beharra eta gogoia. Elkar hobeto ezagutu eta elkarri laguntzeko helburua lantzen ari da jada proiektua, lan egiteko moduak berak ekartzen baitu, halabeharrez, harremana eta komunikazioa.
- **Behar ekonomiko eta finantzarioentzako** proposamenak ere landuko ditugu elkarrekin aurrerago. Babesleak topatu, auto-finantziazio bideak landu, diru-laguntzen kudeaketa berraztertu...



### Urtean zehar egingo diren jarduerak

Elkarteek herri bati egiten dioten ekarpena eta ematen dioten bizitza aitortu nahi du proiektuak, bereziki eta, horretarako, elkarteek egiten duten lana ezagutzera ematea izango dute helburu 2010. urtean –eta urtero egiteko asmoa dugu, gainera– egingo diren jarduerak.

Lau ekintza edo jarduera egingo dira:

- Apirilean: **proiektuaren aurkezpena.**

Gaurko ekitaldi hauxe hain zuzen ere. Proiektukoa lehen aldiz ezagutzera emateko eguna. Proiektuaren marka eta leloarekin batera, helburuak eta lan-ardatzak aurkezteko ekitaldia.

Herritarrei ezagutzera emateko hainbat euskarri prestatu ditugu: biorrikoa, Hitzak aterako duen gehigarria eta displayak.

Prentsaren laguntzarekin gainera, ahalik eta zabalkunderik handiena eman nahi genioke ekitaldiari, eta gaur atera dugun argazki handi honi.

- Ekainean: **Gida eta web gunea.**

- **Gida:** elkarteek, ikastetxeen eta udalaren eskaintza laburbilduko duen liburuxka. Adin-tarte bakoitzak eskolorduz kanpo Pasaian egin ditzakeen jarduerak jasoko dira gidan gurasoen eta gaztetxoek eskura jartzeko. Ikastetxeen bitartez eta elkarteek bitartez banatuko da ekainean.

- **Web gunea:** Gidaren osagarria; informazio gehiago eta zehatzagoa, eta eguneratua jasotzeko gunea sortuko da.

- Irailean: **Elkarteek eguna**

Elkarteek eskainitako jarduerekin osatuko den jaia kalean antolatzea da ideia. Berez elkarteek eskaintzen dituzten jarduerekin osatuko da egitaraua, eta haur eta gazteek jarduera horietan parte hartzeko aukera izango dute.

- Abenduan: **Boluntario lanari gizarte-aitorpena.**

Pasaian elkarteetan lan boluntarioa egiten duten pertsonen (nahiz zuzendaritzetan, nahiz begirale edo entrenatzaile lanetan) aitortzen edo errekonozimendu eta esker on publikoa egitea da ideia.